

BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA: IRIZPIDEAK

-SAREAN-

Bai Euskarari Ziurtagiria “Zerbitzua Euskaraz-SAREAN-” maila eskuratzeko baldintzak bi ataletan laburbiltzen dira. **“Zerbitzua Euskaraz-SAREAN-”** mailarako zehazten diren baldintzak betetzera iritsi ezean, **“Bidean-SAREAN-”** maila dagokio webguneari:

1. IRUDI KORPORATIBOA



- Webgunearen atal finko eta eduki guztiak euskaraz egongo dira.
- Produktu/zerbitzuen informazioa, katalogoak, etab. euskaraz egongo dira.
- Webgunean bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen direnean, euskarari lehentasunezko tratamendu formala emango zaio. Kasu hauetan euskararen presentziak eta tratamendu formalak (letra tamaina, lodiera, kokapena...) beste hizkuntza batek izan dezakeenaren adinakoa izan behar du bezeroarekiko harremanean erabiltzen den agiri edo elementu bakoitzean.

Zein elementu hartzen dugu kontuan?

Irudi korporatiboa: izen ofiziala, menbretea, logotipoa...; webgunearen helbidea; webgunearen menua eta atal finkoak; webgunearen edukia; produktu / zerbitzuen tarifak; produktu / zerbitzuen informazioa: erakundeak sortutakoa, produktu / zerbitzuen informazioa: kanpotik jasotakoa; eskaintza berezien informazioa; bannerrak; produktu / zerbitzuen katalogoak: erakundeak sortutakoak, produktu / zerbitzuen katalogoak: kanpotik jasotakoak; segurtasun, datuen babeserako eta cookieen informazioa; pribatutasun politika; sare sozial korporatiboak: Facebook, Twitter, LinkedIn; etab.

2. KANPO HARREMANAK



- Produktuen eta zerbitzuen gida liburuak, azalpenak eta bermeak euskaraz egongo dira.
- Bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen direnean, euskarari lehentasunezko tratamendu formala emango zaio. Kasu hauetan euskararen presentziak eta tratamendu formalak (letra tamaina, lodiera, kokapena...) beste hizkuntza batek izan dezakeenaren adinakoa izan behar dute, bezeroarekiko harremanean erabiltzen den agiri edo elementu bakoitzean.
- Prentsa idatziko, irratiko eta telebistako iragarkiak euskaraz egongo dira; euskaraz gain, beste hizkuntza batean egotekotan, komunikabidearen arabera hizkuntza batean edo bestean jartzea onartuko da.
- Gainerako elementu guztiak euskaraz egon behar dute.
- Kasu guztietan, ahoz zein idatziz, bezero/erabiltzailea euskaraz artatua izatea bermatu behar da.

Zein elementu hartzen dugu kontuan?

Idatzizko harremanetan: posta elektronikoaren formularioak, (oharrak etab.); posta elektronikoaren helbidea; bezeroei bidalitako posta elektronikoak; bezeroei emandako aurrekontuak; fakturak edo ordainagiriak; poltsak, produktuak biltzeko papera...; produktuen gida liburuak; produktuen bermea; sare sozialetan bezeroekin harreman zuzena (Whatsapp, Skype, Facebook, Twitter etab.); webgunearen bezero-atala (kontu berri bat sortu, aldatu, etab.); ordainketa sistema; webgunearen bilatzailea; asebetetze inkestak; bezeroei bidalitako komunikazioak; etab

Ahozkoak: telefono, skype, whatsapp, etab. harremana; erantzungailua.

Publizitatea eta promozioa: promozio eta publiziterako euskarriak: (banner komertzialak, etab.); iragarkiak: (telebista, irratia, webguneetan, etab.); buletin elektronikoa; mailinak; app-a; promoziorako bestelako euskarriak: (egutegiak, kamisetak, errifak); aurkezpen/hitzaldietako materiala; etab.